

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

#### 410/2024 Foru Agindua, uztailaren 4koa. Hasiera ematea Arabako Arratzua-Ubarrundiako eta Vitoria-Gasteizko udalerrietako lurzoru urbanizaezineko Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan berezia onesteko prozedurari

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren martxoaren 19ko 109/2024 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan bereziaren eraginpean dauden udalei bi hilabeteko epea ematea akordio bat erdiesteko, zeinaren bidez haietako batek bere gain hartuko baitzituen planaren izapidetzea eta onespena.

Foru agindu hori 2024ko martxoaren 22an jakinarazi zitzaion Vitoria-Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalei.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2024ko martxoaren 25eko Dekretuaren bidez, uko egin zion Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetu eta onesteari. Ebazpen hori 2024ko apirilaren 4an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin akordio batera iristeko ahalegina egin ondoren, udalbatzaren 2024ko maiatzaren 13ko bilkura berezian, plan bereziaren izapidetzea bere gain hartzeko borondatea adierazi zuen, eta erabaki zuen Arabako Foru Aldundiari eskatzea luza zezala bi korporazioen arteko akordioa erdiesteko emandako bi hilabeteko epea. Erabaki hori 2024ko maiatzaren 13an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren maiatzaren 21eko 289/2024 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen hilabete luzatzea udaletako batek Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan bereziaren izapidetzea eta onespena bere gain hartzeko akordioa erdiesteko bi udalei hasiera batean emandako bi hilabeteko epea. Foru agindu hori 2024ko maiatzaren 29an jakinarazi zitzaion Vitoria-Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalei.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2024ko ekainaren 24ko Ebazpenaren bidez, berretsi egin zuen uko egiten ziola aipatutako olan berezia izapidetu eta onesteari, eta jakinarazi zuen ez zela bi udalen arteko akordiorik erdietsi tresna hori izapidetzeko. Ebazpen hori 2024ko ekainaren 24an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak du aztergai den espedientea ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorri egin, izapidetu eta onetsi behar direla. Gainera, 95.1 artikulua ezartzen du plan partziala egitea, printzipioz, udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere egin dezaketela.

Ez dago 2/2006 Legean 5/1998 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik. Hartan zehazten zen udalaz gaindiko plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako

eta behin-behineko onespena emateko eskumena, eraginpeko udalerrien artean akordiorik ez dagoenean, dagokion foru aldundiari dagokiola, ez bada zenbait lurralde historikotako udalerriei eragiten diela. Halakoetan, eskumena Eusko Jaurlaritzarena litzateke.

Lege hutsune hori judizialki konpondu da 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko ezarritako eskumen arauak analogiaz aplikatuz udalerrri bati baino gehiagori eragiten dieten plan bereziei.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta hartan aurreikusita dago foru esku hartzea egongo dela bakar-bakarrik eraginpeko udalerriek horretarako akordiorik lortu ezean:

“1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerrri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki-entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

2. Akordiorik ez badago, foru-organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badio– edo Autonomia Erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badio– bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru-administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak –dagokionak– bateragarritze-plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki-entitateei”

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, eta emandako epe luzatua igarota, eta egiaztatuta bi korporazioek ez dutela akordiorik lortu horietako batek izapidetzea bere gain har dezan, izapidea egintzat jotzen da inolako akordiorik lortu gabe. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiari dagokio plan berezia izapidetzea eta, hala badagokio, onestea.

Horrenbestez, eta dagozkidan eskumenak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indarberri SLk eginiko Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetu eta onesteko prozedura hastea.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoari eskatzea hasiera eman diezaiola Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedurari, eta kontsulta egin diezaiela espedienteaz eragindako administrazio publikoei eta interesdunei, bat etorri ingurumen ebaluazioari buruzko legerian jasotakoarekin.

Plan bereziaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoarekin batera, interesdunen eskura egongo da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendearen harrera ordutegian, eta web orrian: <https://web.araba.eus/eu/hirigintza/parke-eoliken-plan-bereziak>.

Hirugarrena. Izapide egintza ez-kualifikatuaren izaera duen foru agindu honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 4a

*Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**